



## **2014KO DEIALDIKO OINARRI ARAUTZAILEAK** **HERRIALDE TXIROTUETAKO ADINGABEEN UDALDIKO HARRERARAKO**

### **DEIALDIAREN XEDEA ETA HELBURUA**

Deialdi honen helburua bada 2014ko udaldian herrialde txirotuetatik datozen adingabeen harrerarako xederatutako diru-laguntza ekonomikoak ematea eta, irabazi asmorik gabeko elkarteek sustatuta, Laudio udalerrian erroldatutako familiek egindako bada harrera hori.

### **ERAKUNDE ONURADUNAK**

Diru-laguntza eskatu ahal izango dute deialdi honen helburuarekin baterako ekintzak antolatzen dituzten elkarteak, betiere, ondoko baldintzak betetzen badituzte:

- Euskadiko Autonomia Erkidegoan edo Nafarroako Foru Erkidegoan erata eta inskribatuta egotea eta Eusko Jaurlaritzako edo Nafarroako Gobernuako Elkarteen Erregistroan beraien dokumentazioa eguneratuta edukitzea.
- Diru-laguntzadun ekintzari eusteko gaitasuna edukitzea; horretarako, dituen giza baliabideen txostena erantsi beharko du, espezifikatuz bakoitzaren lotura eta dedikazio-maila, hala nola beste autonomiako, estatuko edo atzerriko beste erakunde batzuekin dituen harremanik esanguratsuenak.
- Gaitasuna izatea elkartasun eta baliabide pribatuak mobilizatzeko, hala nola beste erakunde batzuetatik diru-laguntzak lortzeko. Demostrazio ondorioetarako, 2013 urtean jasotako laguntzen balantzea aurkeztuko du, horien jatorria, zenbatekoa eta sortutako baliabide propioak.
- Gaitasuna izatea gauzatuko den ekintzaren jarraipen egiteko; horren kaudimena egiteko hori garatzeko aurreikusitako mekanismoak txertatuko dituen plana espezifikatu beharko da.

Deialdi honen barruan programak onartuak izateko azaldu beharko dute era nahikoan lortu nahi dituzten helburuak, egin beharreko ekintzak, aurreikusitako baliabideak eta erakunde organizazio arduraduna zein den.

### **DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA**

Diru-laguntza guztien kopuruak ezin izango du gainditu 2.800,00 €ko zenbatekoa. Gastu hori babestuta dago Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloko 2013rako aurrekontuko 0700-3230-489.03 partidaren kontsigna nahikoa baitago.

### **Diru-laguntzen ezaugarriak**

1. Laguntzak emango dira urteko izaerako diru-laguntza kontzeptuan.



2. Elkartek espezifikatuko dute deialdira aurkeztutako ekintzarako beste erakunde batzuen laguntzak eskatu edo jaso dituen; kasua hori bada, laguntza horien zenbatekoa eta helburua zehaztu beharko da, ordainketetan bikoiztasunak saihesteko.
3. Beste Administrazio edo Erakunde publiko edo pribatuek emandako laguntzak lortu izanak, erakar dezake diru-laguntza hauen emakidako ebazpena aldarazi beharra.

### **Diruz lagun daitezkeen gastuak**

- Geure herrian harrera egingo zaien haurren eta lagunduko dituzten sorterriko natiboen garraioa jatorriko herrialdetik.
- Hala adingabeen nola laguntzaileen kasuan, beraien egonaldian zehar kudea dakizkien Aseguruen kontzeptuari buruzkoak.

Familiek egindako ekarpenak haurrak ekartzeko edo bueltatzeko, programa gauzatzeko ezinbestekoak diren diru-aurrerapenak dira, izatez, eta arrazoi hori dela-eta, Udal honek defizitaren zati kontsideratuko ditu, bere laguntzen bidez arindu nahi duen ekintzaren kostuan.

### **ESKAERETAN SARTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

- Elkarte eskatzailea identifikatzeko eskaera-orria eta fitxa, eredu ofizialaren arabera.
- Egin beharreko ekintzaren txosten narratiboa eta horren populazio onuraduna.
- Laudion harrera jasoko duten adingabeen eta gauzatu beharreko guztirako gastuen aurrekontu xehakaturia, hala nola beraiek ipiniko dituzten baliabide propioen zerrendan eta eskatutako edo jasotako beste diru-laguntzen zerrena.
- Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zerga arloko obligazio guztiak ordainduta dauzkala eta egunean dela adierazten duen Ziurtagiria.
- Ziurtagiria Laudio Udalarekin bere obligazioen ordainketan egunean izateaz eta aurretiko diru-laguntzak bueltatu beharra izateagatik, hala bada kasua.
- Elkarte eskatzailearen Estatutuak (bakarrik deialdira lehen aldiz aurkezten denean).

### **ESKAEREN AURKEZPENA ETA EPEA**

Eskaerak aurkeztuko dira Herriko Etxeko Sarrerako Erregistro Orokorrean edo postaz bidaliko dira deialdi hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita hogeita hamar (30) egun naturalekoa; izapideetara onartu dira bakarrik formaz eta denbora barruan aurkeztutakoak.

### **ERAKUNDE ESKATZAILEAREN KONPROMISOAK**

Diru-laguntzen Orokorra den azaroaren 17ko 38/03 Legeak erabakita dakar erakunde onuradunaren betebeharrak hauek direla:

- Diru-laguntza funtsatu duen objektua, proiektua edo ekimena gauzatea, burutzea eta betetzea.



- Justifikatzea Laudio Udalaren aurrean betebeharrak eta baldintzak betetzen direla, hala nola diru-laguntzaren emakida zehaztu duen helburua ere.
- Udalaren konprobazio jardunen mende jartzea eta eskumena duten organoek egin ahal dituzten finantza-kontrolako beste batzuk, aipatu diren jardunen horiek gauzatzeko eskatuko zaion informazio guztia eskainita.
- Jakinaraztea Udalarari beste diru-laguntza jaso duten ekintzak finantzatzeko dituzten beste diru-laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu izana.
- Kontu liburuak, dilijentzia jaso duten erregistroak eta gainerako behar den legez auditoria pasatutako dokumentuak eskura izatea, kasuan kasuko onuradunari aplikagarria zaion sektoreko eta merkataritzako legeriak eskatutako terminoetan, baita udalak eskatuko dizkion kontularitzako egoera eta erregistro espezifikoak ere, konprobazio eta kontrolako eskumenak era gauzatzeko garantizatzen.
- Jasotako diru laguntzaren erabilera egiaztatutako dokumentu guztiak gorde, dokumentazio elektronikoa barne, egiaztatze eta kontrol jardueraren objektu izan daitezkeelako.
- Programaren finantzaketaren izaera publikoari publizitatea egokia ematea, erregelamenduz ezarritako terminoetan.
- Oinarri hauetan *diru-laguntzaren galerari* buruzko zatian aurreikusitako kasuetan jasotako funtsak bueltatu beharri ekitea.

Laguntza eskaerak berarekin batera dakar elkarte eskatzaileak konpromisoa hartu duela Laudio Udalarekin elkarlanean aritzeko jardueraren garapenari buruzko informazioa eskaintzeko herritarrei.

### **LAGUNTZAK EMATEKO BALORAZIO IRIZPIDEAK**

Diru-laguntzek borondatezko izaera izango dute; beraz, udalak ez du bere gain inolako obligaziorik hartu, deialdi honetako oinarriak bete eta aurkeztutako eskaera guztiei diru-laguntza eman beharraz, deialdia hutsik uztearen kalte barik.

Laguntzak lehia irekiaren erregimenean emango dira eta horien ponderazioa eta emate orduan erabiliko diren irizpide objektiboak izango dira, argitasuna, lehia irekia, berdintasuna eta bereizkeriarik ezaren printzipioak betetzeko, ondoren zehazten diren hauexek:

Harrerako adingabe zenbatekoa (50 p. lehenak, 25 bigarrenak eta 10 hirugarrenak.)	85
GKEaren eta onuradun populazioaren arteko lan aurrekariak (2 puntu / urteko, Gehienez 8 puntu)	8
Eskarmentua eta gaitasuna (puntu 1 / urteko, programako ekintzaren erlazioan. Gehienez: 4 puntu)	4
GGKEaren erregistroa Laudion edo Nerbioi Garaiko beste herriren batean.	3



Irizpide bakoitzeko puntuen guztirako baturak emango duen guztirako puntu kopuru bateratuak adieraziko du esleituko zaion diru-laguntzaren portzentajea, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren arabera.

### **PROGRAMAK AZTERTU ETA HAUTATZEA**

Programak ebaluatuko dituzte deialdia egin duen Arloko langile teknikariek eta, horien artetik, onartutakoak, berrikusi eta puntuatuak izango dira ezarritako irizpide eta baremoen arabera.

### **DEIALDIAREN EBAZPENA**

Deialdiaren ebazpena egitea Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio; hori motibatua izan beharko da eta administrazio arloko bideari amaiera emango diona izango da. Ematekoa edo ukatzekoa izan, ebazpenak espezifikatu beharko du onartutako diru-laguntzen zenbatekoa, eta hala bada kasua, sartu beharreko aldaketak, ordainketa gauzatzeko, eta adieraziko da laguntzaren justifikazio-epea zein den.

Ebazpena hartzeko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe hori igaro bada, berariazko ebazpenik hartu barik, ulertu beharko da eskaera ez dela onartua izan, administrazioaren isiltasunagatik.

Diru-laguntzaren ematearen edo ukatzearen gaineko ebazpena idatziz jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, eta Deialdia egiteko bitarteko berdinetan argitaratuta.

### **DIRU-LAGUNTZAK ORDAINTZEA**

- Lehen ordainketa: diru-laguntza zenbatekoaren % 80a, hitzarmena sinatzerakoan.
- Bigarren ordainketa; diru-laguntzaren gainerako % 20a, programa gauzatzean izaniko guztirako gastuaren aurretiko informeaz eta justifikazio dokumentalaz.

### **Bermeen araubidea**

Ez da ezarriko bermeen araubiderik Elkarteen ohiko ekintzak gauzatzea zailduko duen zorpetzea suposa lezakeenik, kontuan izanik Diru-Laguntzen Orokorra den azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartu zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 42.2 artikuluan ebatzia dakarrena, non dioen hauxe: *Salbuetsita geratzen dira bermea eratzetik, oinarri arautzaileetan aurkako berariazko aurreikuspenaz salbu... d) Irabazi asmorik gabeko erakundeak... gizarte ekintzako edo nazioarteko lankidetzako programak eta proiektuak gauzatzen dituztenak..*

### **JARDUERA ETA EKINTZEN JARRAIPENA ETA JUSTIFIKAZIOA**

Jasotako diru-laguntza justifikatzeko, diru-laguntza jaso duen elkarteak aurkeztu beharko du, bere ordezkariaren erantzukizun aitortuaz, ondoko dokumentazioa:



- Diru-laguntza jaso duen programako sarrera eta gastuen balantzea, erakunde publiko zein pribatuen beste diru-laguntzak barne sartuta.
- Egitaraua nola gauzatu den azalduko duen Aktibitateen Memoria;
- Herriko familiek Laudion harreran hartutako adingabeek sortutako gastuen justifikazioa (faktura originalen bitartez eta merkataritzako trafiko juridikoan balio duten edo administrazioan eragina duten gainerako proba balioa duten dokumentuak, onartutako diru-laguntzaren zenbatekoa beste), eginiko banku ordainketen justifikanteak erantsita.
- Egiaztatzea ezen aurkeztutako dokumentazioa kontsideratu ostean Udalak, bere laguntzen bitartez, arindu nahi duen defizitaren zati legez, harreran hartu dituzten familiei bueltatu egin zaizkiela, ekintzaren gain-finantzaketa posiblek saihesteko.
- Jarduerak finantzatu direnean, jasotako diru laguntzaz gainera, Elkarteko fondo propioekin edo beste laguntza edo baliabideekin, egiaztatu beharko da, baita justifikazioa, zenbatekoa, diruaren jatorria eta fondo horien aplikazioa diru-laguntzako aktibitateetara ere.

Kontuak aurkeztu beharko dira 2015eko urtarrilaren 30 eguna baino lehen.

### **DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA DOITZEA.**

Erakunde onuradunak programatutako ekintzak ez baditu bere osotasunean egin edo programako benetako kostua aurrekontukoa baino txikiagoa izan bada, Udalak, Gizarte Ongizate, Lankidetzeta eta Osasun Arloak formulatutako proposamenaren bitartez, emandako diru-laguntza zenbatekoaren doitzeari ekingo dio, emakidarako ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuta.

Irizpide horiek aplikaziokoak izango dira onuradun elkarteak azken finean jaso behar duen, edo hala badagokio, bueltatu behar duen zenbatekoa, zehazteko orduan eta proportzionaltasuneko printzipioari erantzungo diote beti ere.

### **ARAU-HAUSTEAK ETA DIRU-LAGUNTZA GALTZEA**

Elkarte batek emaniko diru-laguntza gal dezake, hurrengo kasu hauetan:

- Eskaera orriko edo eskainitako dokumentazioko datuak faltsutuak izan direnean.
- mandako diru-laguntza ez erabiltzeagatik aurkeztu eta onartutako egitaraurako.
- Kitapena bidaltzeko epe-muga amaitu ostean, hori aurkeztua izan ez denean.
- Laguntza zenbatekoak, bakarrik edo beste diru-laguntza publiko edo pribatuekin batera, diru-laguntza jaso duen aktibitatearen kostu osoa gaitzen duenean.
- Zenbatekoa doitzeari buruzko deialdi honetako klausulan erabakitako egoerak gertatzen direnean edo, oro har, Oinarri hauetan edo diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharretariko edozein ez betetzeagatik.

Zabaldutako espedientearen indarrez laguntza galtzen bada jasotako diru zenbatekoak Laudioko Udalaren kontu korrontera transferentzia bitartez bueltatu egin beharko dira nahitaez eta laguntza ordaindu egin zitzaionetik hasita berandutzako korrituak ere ordaindu beharko ditu.



Dagokion zenbatekoa itzultzeak edo bueltatzeak kontuan edukiko ditu zuzenbide publikoko diru-sarrerak eta diru-sarrera horien arabera egingo da kobrantza hori.

Arau-hauste eta zehapenen tratamendurako, edonola ere, lehenetsiko da Diru - Laguntzen Orokorra den Legeko 52.artikulutik 68 artikulura xedatuta dakarrena.

### **GARAPENA**

Udalbatzarraren Tokiko Gobernu Batzarrak edo Alkatetza - Udalburutzak hartuko dituzte dagozkion ebazpenak deialdi honen garapenerako, exijitu eta egiaztatu ahal izanik datuak benetakoak direla eta Oinarri hauetan araututakoa betearazten dela. Horregatik, erakunde onuradunek konpromisoa hartzen dute beraiei dagozkien programetan gauzatzen diren harrera ekintzekin zerikusia duen datu eta dokumentazio guztia, sei hilabeteko epe baten barruan Udalak eskatu ahal diena, programa horiek gauzatze egunetik hasita.

### **INTERPRETAZIOA**

Oinarri hauen interpretazioari buruz sortu ahal den edozein zalantza Udal honetako Gobernu Batzordeak ala Alkatetza Udalburutzak erabakiko du

Aplikazioko oinarritzko arauak izango dira Aurrekontua Betearazteko Udal Arauan 27. artikulua eta Xedapen gehigarri bakarra.

Zuzenbidean ordezeko araubidea izango da, goiko Arauan aurreikusi gabekoetan, azaroaren 17ko Diru-laguntzen Orokorra den 28/2003 Legean xedatutakoa.

### **ERREKURTSOAK EDO HELEGITEAK**

Deialdi hau eta beraren ondoriozko administrazio egintza guztiak, Herri Administrazioen Erregimen Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkideko 30/92 eta aurreko lege nagusi hori aldarazteko eta 4/99 Legean ezarritakoak.

### **ZABALKUNDEA**

Deialdi hau Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu da, Herriko Etxeko iragarkien taulan, Udalaren web atarian eta ZUIN udal informazio orrian argitaratuko da, ahal denik eta zabalkunderik handiena ematen saiatuz.

Laudio, 2014ko apirilaren 2a.